

# MATIA

Fundazioa

## Txara I zentroa

### TXARA I GERONTOLOGIA ZENTROA

Zarategi pasealekua, 100  
20015 Donostia  
Telefonoa: 943 32 68 38  
Faxa: 943 28 39 99



Matia Fundazioak 1888tik dihardu Gipuzkoan lanean, beren kabuz baliatzen ez diren adinduei eta haien senitartekoei laguntza ematen. Gaur egun, honako baliabide hauek ditu gure fundazioak: ospitale bat, sei gerontologia-zentro, eguneko bost zentro, errehabilitazioko zazpi zentro, gorputz-ezinduei zuzendutako unitate bat eta espezializatutako hainbat kontsulta-zerbitzu (adibidez, Oroimen eta Alzheimer Unitatea eta Gerontologia Ebaluazio eta Orientazioko Zerbitzua).

Bakoitzaren ezaugarriak eta beharrak kontuan hartuta, banan-banako arreta osoa eskaintzen dugu. Adinduaren osasuna, autonomia, partaidetza eta gizarteratze-maila hobetzea dira gure kezkarik handienak: azken finean, adinduaren eta haren familiarterkoen bizi-kalitatea areagotzea.

Arreta-eredurik aurreratuenak eta lan-talde lehiakor bezain konprometitua ditugunez, Matia Fundazioa erreferente bihurtu da adinduen zaintzaren sektore soziosanitarioan. Estatuko lehen entitate pribatua izan gara zerbitzu soziosanitarioetan kalitatearen ziurtagiri hirukoitza jasotzen eta kudeaketa-bikaintasunaren zilarrezko Q saria lortzen.

TXARA I gerontologia-zentroan, etxean zaindu ezin dituzten eta beren kabuz baliatzen ez diren adinduei eta haien familiei laguntzen diegu, eta bai batzuei bai besteei gure



zentroan sartzeko eta moldatzeko prozesua samurtzen saiatzen gara. Zentroa Donostiako Intxaurrondo auzoan dago. Gipuzkoako Foru Aldundiarena da eta Matia Fundazioak kudeatzen du. 1997an ireki zituen ateak eta instalazio zabal bezain modernoak eskaintzen ditu. Hona hemen eskaintzen dituen zentroak:

- Egoitza zentroa
- Eguneko zentroa

## EGOITZA ZENTROA

### Banan-banako arreta espezializatua

Lehenik eta behin, hasierako balorazioa egiten zaio erabiltzaileari. Zentroko diziplinarteko talde bat arduratzen da zeregin horretaz. Balorazio horren emaitzen arabera, banan-banako zainketarako plana zehazten da. Gero, aldiari behin, berrikusi egiten da plan hori, erabiltzailearen aldaketan eta behar berrien arabera egokitzeko.

Familiaz eta gizarte-inguruneaz ere arduratzen gara; horregatik, informazioa, aholkularitza eta laguntza eskaintzen diogu uneoro familiari: zentroan sartu aurretik, sartzeko egunean, egokitzapen-aldian eta egonaldi osoan zehar.

### Instalazio osoak eta egokituak: 120 plaza

Zentroa zerbitzu guztiez hornitutako modulu txikietan dago antolatuta, eta horrela, ezaugarri antzekoak dituzten erabiltzaileek batera egoteko aukera dute. Bestalde, talde txikitan antolatuta egonda, arreta ere zuzenagoa da eta errazagoa da ingurua bakoitzaren beharretara egokitzea.

Birentzako eta batentzako gelak daude zentroan; guztiek ere bainugela pribatua dute eta erabat jantzita daude. Hainbat egongela, terapia-gela eta jangela ere badaude, eta horiei esker, egoiliarrek talde txiki hurbilagoetan pilatzeko aukera dute. Bestalde, kafetegia, ikuztegia, beilatokia eta sukaldea ere baditu.

### Profesional-talde handia zure esanetara

Profesional-talde oso kualifikatua dugu, eskarmentu handikoa. Talde-lanean oinarritzen dira eta, beraz, kalitatezko erabateko arreta eskaintzen dute. Gainera, erabiltzaileei zuzeneko harremana eskaintzen zaienez, bakoitzaren arazoaren nondik norakoen berri izaten dute. Hona hemen taldekideak:

- zentroko zuzendariak
- gizarte-langilea
- programak koordinatzen dituen psikologoa
- medikua
- erizaina
- laguntzaileak
- lan-terapeuta
- programetako monitoreak

### Zerbitzu eta programa integralak

Diziplina ugari uztartzea, talde-lana eta egoiliar bakoitza banan-banan eta osotasunean baloratzea dira zentroko lanaren oinarriak, egoiliarren behar guztiei erantzuteko:



## Gogo-aldarte

- Laguntza psikologikoa eta soziala emateko programa
- Egokitzen laguntzeko programa
- Erlaxazio-programak
- Senitartekoei laguntzeko programa

## Zaletasunak eta aisialdia

- Lan-terapia eta eskulanak
- Bingoa, mahai-jokoak, filmak, txangoak
- Egoiliarrentzako eta senitartekoentzako kultur jarduerak

## Gaitasunak eta autonomia

- Gimnasia eta psikomotrizitatea
- Eguneroko bizitzan autonomia izateko jarduerak
- Errealitatean orientatzeko programa
- Mantentze funtzionaleko programa
- Oroimen-programak
- Musika-terapiako programa
- Egun on programa
- Irakurketa-idazketako programa

## Osasuna

- Laguntza pertsonalerako zerbitzua: eguneroko bizitzako funtsezko jardueretan laguntzea
- Medikuntza eta erizaintza laguntza espezializatua
- Farmazia-laguntza
- Laguntza psikologikoa
- Fisioterapeuta/masajista (aukerakoa)
- Balorazio odontologikoa eta zerbitzu odonteknikoa (aukerakoa)
- Audiometriako zerbitzu tekniko eta entzumen-defiziten egokitzapena (aukerakoa)

## Familia

- Laguntza psikologikoa eta soziala emateko programa
- Senitartekoak eta zaintzaileak prestatzeko programa
- Erabiltzaileek eta senitartekoei aktiboki parte hartzeko programa: egoiliarren eta senitartekoen batzordea

## Ongizatea

- Nutrizio- eta mediku-beharretara egokitutako dieta
- Ile-apaindegia (aukerakoa)
- Podologia-zerbitzua (aukerakoa)
- Erljio-zerbitzua
- Laguntza espirituala

## Gizarte-harremanak

- Generazioen arteko truke-programak
- Kultur zentroetako programa irekietan, kulturaren aldetik interesgarriak diren txangoetan... parte hartzea

## Eskubideak

Matia Fundazioak asistentzia-etikako batzordea du. Bertan, adinduen zainketaekin zerikusia duten beste erakunde batzuek ere hartzen dute parte. Pertsonen eskubideak bermatzea du helburu, bai eta asistentziaren alorrean sortzen diren arazoak konpontzeko jarraibideak ematea ere.

Bestalde, adinduaren egoera eta garai guztietan ematen du Matia Fundazioak arreta osoa eta etengabea. Izan ere, zerbitzu espezializatuen eskaintza zabala du:



- Birmingham ospitalea
- Errehabilitazioa
- Zainketa aringarrien unitatea
- Geriatria-medikuntzako kontsulta
- Neurologia-kontsulta
- Kardiologia-kontsulta
- Gerontologia-ebaluazio eta -orientaziorako zerbitzua (SEOG)
- Oroimen- eta alzheimer-unitatea

## EGUNEKO ZENTROA

Eguneko zerbitzu sozioasistentzial honek funtsezko beharretan eta behar terapeutiko eta soziokulturaletan zaintza eta laguntasuna behar duten adinduen familiei laguntzea du helburu eta, horrela, zaintzaile nagusiei arnasaldiak ematea. Eguneko zentroak, familiei adinduak zaintzen laguntzeaz gain, erabiltzailearen autonomia sustatzea eta hura familia-ingurunean zein gizartean integratzea ere lortu nahi du.

### Plazak

25 plaza

### Ordutegia

Astelehenetik ostiralera  
09:00etatik 18:00etara

### Honako zerbitzu hauek eskaintzen ditugu:

- Banan-banako arreta eguneroko jardueretan
- Mediku eta elikapen beharretara egokitutako dieta
- Prebentziozko geriatria-medikuntzako eta erizaintzako kontsultak
- Egokitutako garraio-zerbitzua
- Osasunari, aldarteari eta gaitasunei laguntzeko programak
- Lan eta aisia programak

## INFORMAZIO GEHIAGO

Zentroaren zerbitzuei buruzko informazio gehiago nahi baduzu:

### Txara I Gerontologia Zentroa

Zarategi pasealekua, 100  
20015 Donostia  
Telefonoa: 943 32 68 38  
Faxa: 943 28 39 99  
Helbide elektronikoa: txaral@matiaf.net  
[www.matiafundazioa.com](http://www.matiafundazioa.com)

Matia Fundazioaren beste zerbitzu batzuk

### Gerontologia-zentroak:

- Birmingham (Donostia): Telefonoa: 943 31 71 00
- Julian Rezola (Donostia): Telefonoa: 943 31 71 20
- Alai Etxe (Intxaurren): Telefonoa: 943 40 06 43



- Fraisoro (Zizurkil): Telefonoa: 943 69 60 51

**Eguneko zentroak:**

- Bermingham (Donostia): Telefonoa: 943 31 71 00
- Fraisoro (Zizurkil): Telefonoa: 943 69 60 51
- Rezola (Donostia), asteburu eta jaiegunetan ere bai: Telefonoa: 943 31 71 20

**Bermingham ospitalea:** Telefonoa: 943 31 71 00

**Errehabilitazioa:** Telefonoa: 943 31 71 00

**Erabiltzaileen balorazioa eta orientazioa:** Telefonoa: 943 31 71 00

**Oroimen eta Alzheimer Unitatea:** Telefonoa: 943 31 71 00